


# DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

## JOSU TIJERAREN IBILBIDEA



### Lan merkatua



**GOIAZ! 2017**

Lanbide Heziketaren Azoka  
**Apirilaren 26an eta 27an**  
Kulturaren, Arrasaten



goiazdebagoiena



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Ekonomia, Sustrarenaketa, Lanbide Heziketaren  
eta Lurraren Oribako Departamentua

**J**osu Tijera gaztea Mekanizatuko erdi-mailako heziketa ziklo bat egiten ari da Oñatiko Zuazola-Larraña Institutuan. Ikasketak batxilergotik jarraitu beharrean, Lanbide Heziketa aukeratu du ikasketekin jarraitzeko:

**Zergatik aukeratu duzu Lanbide Heziketa?**

Garbi nuen ez nuela unibertsitatera joan nahi, ezta batxilergoa egin nahi ere. Mekanizatu arloa eta tailerra gustatzen zait, eta horregatik aukeratu dut. Aspalditik neukan erabakita Lanbide Heziketa egingo nuela.

**Lagunek edota gurasoek zer esan dizute Lanbide Heziketa aukeratzeari?**

Nagusiagoak diren lagunek ere oso ondo hitz egin didate ikaske-

ta hauei buruz, eta horrek are gehiago animatu nau. Gurasoak ere nire aukeraketarekin ados agertu dira.

**Zein ezberdintasun topatu dituzu eskolatik Lanbide Heziketara?**

Hemen ez daude hainbeste ikasgai eta liburu. Tailerrera joaten gara, marrazketa egiten dugu, mekanizazio prozesuak eta automatizazioa ikasten ditugu, piezak tresna desberdinekin neurtzen ikasten ari gara... Goiza konturatu gabe pasatzen zaigu!

**Gustura zaude egindako aukerarekin?**

Bai; ez nuke atzera egingo. Oso gustura nago. Gainera, goi-mailako ziklo batekin jarraitzeko asmoa daukat mekanizazio arloan, gaur egun enpresek maila hori eskatzen dute eta.